

ASKATASUN HERRITARRAK



EGOERA

Herralde bat demokratiko gisa kualifikatzeko, bi aldagai bateratu behar dira gutxienez: lehenengoa, taldeko eta banakako eskubideen benetako aintzatespen-esparru bat izatea; bigarrena, aintzatespen hori gauzatzeko mekanismoetan sakontzea, haren ardatz nagusia herritarrek gai publikoetan daukaten parte-hartzea izanik.

Izan ere, adierazi dugu gatazka politikoko egoerak ondorio handiak dituela eskubide eta askatasun demokratikoez gozatzeari dagokionez. Baina horrez gain, hurbileko gizarteetan bezalaxe, balio horiek murriztuz doazela ikusten dugu, horiek baliatzeko espazioak etengabe gutxitzen direla. Interpretatu egiten dugu euskal herritarrek parametro aurrerakoi nabarmenetatik gainditu nahi dutela defizit hori, eskubide eta askatasun demokratikoak baliatzeko eremu horiek ahalik eta gehien zabaldua eta sakonduta, guztiengana irekitzeaz gain. Amaitu gabe jarraitzen du politikez, zerbitzu publikoez eta oro har espazio publikoaz berdintasunean, errespetuz eta erabateko eskubideekin gozatzeko itxaropen horrek.

Baina, gainera, beharrezkoa da «gai publiko» horien ideia herritar guzti-guztien, gure elkartearen eta gure erakundearen berezko kontu moduan berreskuratzea, haiei buruz jakiteko eztabaidatzeko eta erabakitzeke. Beharrezkoa dugu ere herritarren erantzukizuna berreskuratzea, botere publiko ordezkarien jarduketaren benetako kontrolari dagokionez. Azken batean, nahitaezkoa da demokraziaren «plaza publikoan» parte hartzeko harrotasuna eta plazera senti dezagula, alderdi publikoetan ere gure bizitzen zuzeneko egile eta arduradun izate aldera, alderdi horien esku baitago gure ongizatea.

Jakinik pertsona orok eskubide guztiak osoki baliatzea, zalantzarik gabe, edozer gizarterentzat amaitu gabeko etengabeko helmuga bat dela. Beste gizarte batzuek bezala, nahitaezkoa dugu gobernamentuan, parte-hartzearen gardentasunean, segurtasunean, justizian, zigor-ereduan eta beste alorretan ageri diren arazoez arduratzea eta horiek ekiditea. Ulertzen dugu gureak eskatu egiten duela eta merezi duela alor horretan urrats sakon eta atzeraezinak eman daitezela.

HELBURUAK

Giza eskubideak eta funtsezko askatasunak babesteko esparru bat sortzea

Politika publiko guztiak nazioarteko ordenamenduetan jasotako giza eskubideak izan behar dituzte gidari. Dena dela, adierazpen hutsetik irudikapen praktiko eta eraginkorrera doan bidea igaro behar dugu, eta atzean utzi eskubide horiekin talka egiten duten inertziak, jardunbideak, neurriak eta jarrerak. Egia da Espainiako legeria

eskubideak baliatzeko espazioak murriztuz joan dela eta errepresio-sistema berri bat inposatu duela, ez-esplizitua, ez hain agerikoa eta antza denez ez hain zorrotza, baina ondorio larriekin: minimo demokratiko horien fiskalizazio arbitrarioaren laginak dira, esaterako, Herritarren Segurtasuneko Legea, segurtasun pribatuko legea, azken aldian Zigor Kodean gauzatutako erreformak edo gobernuaren Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ordezkariaren jarduketa. Gure iritziz, badira baldintza objektiboak politika eta zerbitzu publikoen eskaintzan eta espazio publikoaren aprobetxamenduan bertan giza eskubideak eta funtsezko askatasunak babesteko esparru orokor bat finkatzeko.

NEURRIAK

1 **ESPAZIO PUBLIKOA HERRITARREN ERABILERARAKO BERREZARTZEKO POLITIKA BAT.**
Espazio publikoa kudeatzeko erronka berriei modu integralean egin behar zaie aurre, hura eskubide zibilak eta politikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak baliatzeko espazio gisa ulertuta, bai eta gobernamendua eta herritarren parte-hartzea ulertzeko modu berriekin lotutako espazio gisa ere. Ikuskizun Publikoen eta Josteta Jardueren Lege berriak ezarri du zer baldintza orokorretan gauzatu behar diren ekimen horiek. Beharrezkoa da lege horrek praktikan nola jarduten duen ebaluatzea, bai eta hutsuneak antzematea eta espazio publikoaren erabileraren murrizketa-alderdiak diagnostikatzea ere, etengabeko merkaturatzeari eta komertzialak baino ez diren interesen esku uzteari dagokionez, haren erabilera hiritarregana eta haien asoziazionismora baztertuta. Edozer programak bide publikoaren erabilera bizia eta osasungarria ondorio duten jarduketak lehengoratu behar ditu.

2 **MANIFESTAZIO- ETA BILERA-ESKUBIDEA.**
Espazio publikoa bizikidetzeta-espazio gisa indartu behar da, baina baita ere manifestatzeko eta era baketsuan biltzeko eskubidea baliatzeko espazio gisa. Protestatzeko espazioa ere bai, are protesta horrek indarkeriarik gabeko desobeditze zibilaren forma hartzen duenean ere. Egungo polizia-politikak baimenaren eta zaintzaren mende ipintzen ditu eskubide horiek, «gertakari-presuntzioaren» mentalitate ikusita. Politika hori birformulatu beharra dago, espazio publiko librearen errespetuzko erabilera aurreikusita.

3 **ESPAZIO PUBLIKOA SEKTORE KALTETUENENTZAT BALIATZEA.**
Halaber, bereziki kaltetutako, zokoratutako eta baztertutako sektoreen aldeko neurriak sustatu behar dira, espazio publikoa erabili eta baliatu ahal izan dezaten inolako murrizketarik, kontrolik edo prebentzio-ikuskapenik gabe.

4 **GOBERNUAREN ORDEZKARIAREN DESAGERPENA.**
Instituzio- eta politika-ildoetatik neurriak hartu behar dira gobernuaren ordezkariaren jarduketan salaketa helarazteko, etengabeko eskubide-urraketen gune izateagatik, bai eta figura hura desagerrarazteko aldarrikapena bideratzeko ere.